



AMAITU DA BIME PRO BILTZARRAREN EDIZIORIK TRASZENDENTE ETA NAZIOARTEKOENA, ETA 2021. URTERAKO DATAK IRAGARRI DITUZTE

Biltzarrean 3.718 profesional bildu dira, eta musikaz, industriaz, kulturaz, lanaz, berrikuntzaz eta etorkizunez betetako 42 orduren protagonista izan dira.

BIMEren 9. edizioa 2021eko urriaren 27tik 30era bitarte izango da.

Bukatu da musikaren industriako profesionalak bildu dituen 4 eguneko **BIME PRO** biltzarra. Aurten, lehen aldiz, online jarraitu ahal izan da biltzarra, eta, horregatik, inoiz baino nazioartekoagoa eta esanguratsuagoa izan da; izan ere, **3.718 parte-hartzaile izan ditugu 37 herrialdetatik baino gehiagotatik**, eta horietatik 1.520 Bilbora etorri dira 5 egoitzetan (Euskalduna jauregia, BBK aretoa, La Ribera, Bilborock eta Azkuna Zentroa) izan diren jardunaldi presentzialetan parte hartzera. Aurreko ediziokoak baino handiagoak dira zifra horiek, askoz handiagoak.

Hasieratik, Europaren eta Amerikaren arteko zubi-lanak egin ditu biltzarrak, mundu osoko profesionalak parte hartu izan duten aldetik: **Txile, Argentina, Venezuela, Mexiko, Alemania, Kolonbia, Erresuma Batua, Polonia, Italia...** eta sormen-industrien eta kultura-industrien diziplina guztietakoak: managerrak, jaialdietako sustatzaileak, teknikariak, produktoreak, artistak, banatzaileak, sortzaileak, komunikabideetako profesionalak, erakunde publikoetako ordezkariak... Horiek guztiak ezinbestekoak baitira musika entzun dadin, formatu batean ala bestean.

BIME PRO 2020 biltzarrean profesional horiei guztiei elkarrekin lan egiteko aukera eman dien plataforma digitala aktibo utziko dugu; hartara, emititutako eduki guztiak eskuragarri eta networking-eko tresnak erabilgarri egongo dira, aste honetan sortutako sareak zabaltzen jarraitu ahal izateko.

Ekitaldi honek urrats sendoa egin du aurrera jasangarritasunari dagokionez, topaketaren ardatz nagusietako bat den aldetik; horrela, bada, **Garapen Jasangarriko Helburuak** izan ditugu xede, eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoaren oniritzia jaso dugu, ErronkaGarbia ziurtagiriaren bidez.

BIME PRO ez da musikaren arloko profesionalen erreferentziako topagunea soilik; berrikuntza da, lana da, etorkizuna da eta ziklo berri baten abiapuntua markatzen du. Sektorearen erresilientziari eta erronkak gainditzeko egungo gogo biziari esker, ideia berriekin, tresna hobeeekin, aukera berritzaileekin eta, garrantzitsuena dena, baikortasunez eta energiarekin baterik egingo diegu aurre datozen hamabi hilabetei. **Hurrengo edizioa 2021eko urriaren 27tik 30era bitarte izango da** eta poesiaren eta musikaren jainko greziarra da izango du inspirazio-iturri, hau da, Apolo; izan ere, poesiak eta musikak gizakiaren sentsibilitatea elikatu izan dute antzina-antzinatik, baina baita arrazoia eta ezagutza ere, eta horiek gabe ezinezkoa izango litzateke kulturak garapen osasungarri eta jasangarria izatea.

BIME
2021eko urriaren 27tik 30era
#bimepro